



ARANTZako UDALA

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arrantza.udala@terra.es

2012KO ABENDUAREN 7KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Ohiko bilera.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2012.12.07.

Ordua: Arratsaldeko 19:30ean.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Imanol Artola Guridi jn.

Koldobike Gorostiza Uriguen and.

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn

Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Bertaratu ez direnak:

Ander Almandotz Indakoetxea jn.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko akten onespina.
- 2.-Udal eraikinen garbiketa.
- 3.- 2013ko karga tipoak, tasak eta prezio publikoak.
- 4.-Arantzako eskolaren egoera.
- 5.-Anguleroko eraikuntzaren egoera.
- 6.-Bake epaitegiko bake epailearen ordezkoren hautaketa.
- 7.-Bortziriak Pilota Elkartea: diru laguntza eskaera.
- 8.-2013ko aurrekontua eta plantilla organikoa: hasierako onespina.
- 9.-2012-2013ko mendiko lanak.
- 10.-Frontoia ondoan etxola egiteko proposamena.
- 11.-Emakumeen aurkako bortizkeriari buruzko idatzia.
- 12.-Alkatearen ebazpenak.
- 13.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTEN ONESPENA.

2012ko irailaren 20an, 2012ko urriaren 5eko eta 2012ko urriaren 30eko aktak ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-UDAL ERAIKINEN GARBIKETA.

2012ko urriaren 30ean egindako bileran erabaki zen 2013. urterako udal eraikinen garbitasuna egiteko bi pertsona kontratatzea, aldi baterako (2013. urterako) eta 3 orduz lan egiteko bakoitzak eta egunero, beti ere, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emandako 233/2012 ebazpenaren baldintza pean, otsailaren 23koa, interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeko toki entitateendako diru-laguntzak arautzen dituen eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen 2260/2012 ebazpenaren bidez aldatua.

Kontuan hartuz irekitako epean pertsona bat bakarra aurkeztu dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) 2013. urterako udal eraikinen garbitasuna egiteko bertze pertsona kontratatzea, aldi baterako (2013. urterako) eta egunero 3 orduz lan egiteko.
- 2) Deialdiaren oinarriak onartzea.
- 3) Deialdi publikoa egitea.

3.- 2013KO KARGA TIPOAK, TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK.

Gaur eguneko karga tipoak, tasak eta prezio publikoak aztertu dira.

Kontuan hartuz Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritakoari jarraituz, karga tipoak, tasak eta prezio publikoak aurreko urtean ezarri behar direla.

Alkateak, Inaxio Madariaga jaunak eta Koldobike Gorostiza andreak proposatu dute berdin uztea eta 2013. urterako ez igotzea.

Imanol Artola jaunak Bilduren proposamena (aurreko Plenoan banatu zen zinegotziei) aplikatzearen alde dago eta KPIa igotzea kasu batzuetan.

Jose Javier Mitxelena jaunak KPIa igotzearen alde agertu da.

Ondorioz, 3 botoen gehiengoarekin, ERABAKI DUTE:

- 1) 2012ko karga tipoak, tasak eta prezio publikoak mantentzea eta ez igotzea.

4.-ARANTZAKO ESKOLAREN EGOERA.

Arantzako eskola handitzeko beharra ikusirik eta bertan bilera egin ondoren, udal arkitektoei memoria eta aurrekontu bat aurkeztea erabaki zen, aukera desberdinak aztertzeko, eta ondoren, erabaki bat hartzeko hurrengo bileran.

Kontuan hartuz oraindik ez dutela deus bidali, gaia hurrengorako uzten da.

5.-ANGULEROKO ERAIKUNTZAREN EGOERA.

Gai hau mahai gainean utzi da Udaleko arkitekto eta abokatuek ez dutelako eskatutako dokumentazioa bidali.

6.-BAKE EPAITEGIKO BAKE EPAILEAREN ORDEZKOAREN HAUTAKETA.

Arantzako Bake Epaitegiko epaile ordezkoren agintzeko epea bukatu denez, ordezko epailea izendatu behar da hurrengo lau urteetarako.



Ikusirik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta herrian zehar argitaratutako iragarkien ondorioz ez duela inork izena eman, Udalak zuzenean izendatzeko aukera du.

Aho batez, eta gehiengo izanik, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako Bake Epaitegiko epaile ordezkoa Ana Larretxea Apeztxea andrea izendatzea.

2) Akordio hau interesatuari eta Nafarroako Auzitegi Nagusiko Gobernuko Idazkaritzara bidaltzea.

7.-BORTZIRIAK PILOTA ELKARTEA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Bortziriak Pilota Elkarteak aurkeztutako diru laguntza eskaera, 2013ko denboraldirako.

Kontuan hartuz elkarte horretan herriko ume eta gazteek ere sartuak daudela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2013ko aurrekontuan 300,00 euroko partida aurreikustea herriko pilotarien beharrei zuzendua eta sobratzen bada Bortzirak Pilota Elkarteari ematea.

8.-2013KO AURREKONTUA ETA PLANTILLA ORGANIKOA: HASIERAKO ONESPENA.

Gaia aztertu da eta aportazioak edo aldaketak egiteko hurrengo bilerarako utzi da.

9.-2012-2013KO MENDIKO LANAK.

Gai hau Mendi Batzordeak gehiago aztertzeke utzi da.

10.-FRONTOIA ONDOAN ETXOLA EGITEKO PROPOSAMENA.

Arantzako eskolak baratze bat nahi du ireki ikasleekin lantzeko.

Baratzeko tresnak gordetzeko etxola bat beharrezkoa da eta hori Udalak jartzea eskatu du guraso elkarteak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Udalak asumitzea gastu hori.

11.-EMAKUMEEN AURKAKO BORTIZKERIARI BURUZKO IDATZIA.

Arantzako Gizarte Zerbitzuen Batzordeak aurkeztutako ondoko mozioa irakurri da:

“Azaroak 25a emakumeen indarkeriaren aurkako eguna da, jakin ezazue gaitzetsi nahi dugun egun hau, emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanetan oinarritutako arazoa dela. Historian zehar oreka eza handia izan duena eta oraindik ala duena. Botere-harreman hauek eragin dute gizonezkoek emakumezkoak menderatzea, emakumezkoak baztertzea eta hauen garapenean trabak jartzea. Emakumeen aurkako indarkeria edozein gizarteren garapenerako oztopo handia da. Genero indarkeriak biktimengan ez ezik, gizarte osoan eragiten ditu kalteak.

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko tresna bakarra berdintasuna bultzatzea dela gogora arazi nahi dugu. Emakumeen aurkako indarkeria ez da emakumeen arazoa, gizarte osoarena bazik, horregatik garrantzitsua da gizon eta emakumeen parte hartzea arazo hau konpontzeko.

Gure inguruko gobernuei, hedabideei eta erakunde ezberdinei emakumeen aurkako indarkeriaren aitzinean hurrengo pausoak eman ditzaten eskatu nahi diegu:

- ✿ ERAKUNDE eta ALDERDI POLITIKOEI hitzetik ekintzara pasatzea exijitu nahi diegu, kaleratzen dituzten mezuak eta neurriak eragina izan dezaten nahi dugu, indarkeria jasaten duten emakumeei beharrezko laguntza eta babesa eskaintzea eskatzen dugu.
- ✿ KOMUNIKABIDEEI erasoak eragiten duen mina errespetatu dezaten eskatzen diegu, morboa alde batera utziz!
- ✿ JUSTIZIARI emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko beharrezkoak diren neurriak diseinatu eta modu eraginkor eta azkarrean gestionatzeko exijitzen dugu.
- ✿ PERTSONA BAKOITZARI jendarte justuagoa lortzeko arazo honekiko hausnarketa egitea eskatu nahi diogu. Pertsona guztiak berdintasunean garatzeko eta bizitzeko aukera izan behar dugulako.
- ✿ NAFAR GOBERNUARI indarkeria jasaten duten emakumeekin lan egiten duten erakunde eta zerbitzu ezberdinak mantendu eta modu eraginkorrean kudeatzeko beharrezkoa den laguntza bideratzea exijitzen diogu..

Azaroaren 25rakin loturik dauden ekimenetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.”

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Mozioa onartzea.

12.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2012ko 91tik 94 arte).

13.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Koldobide Gorostiza andreak azaldu du Bertizko Partzuergoaren bidez markatu direla GR11 eta GR12 sendak eta hori biltzen duen mapa jarriko dela parke ondoan denek ikusgai izateko.

Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:

14.-IGANTZIKO UDALAREN IDATZIA.

Ikusirik Igantziko Udalak bidalitako idatzia, Nafarroa Atlantikoko Lurraldearen Antolamenduko Planean arautzen diren irizpideak aldatzeko proposatuz, gehienbat, gorde beharreko lur zoru urbanizaezinean familia bakarreko etxebizitza berri bakartuak egiteko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Udal hau ados agertzea Igantziko Udalak proposatutako LAParen esparruko aldaketa egiteko.



ARANTZAKO UDALA

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@terra.es

Bertzerik gabe, gaueko 22:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Jaime Iturria Mitxelena jn.



